

## INFORMAZIO OHARRA

### **Maori hizkuntza eta euskara biziberritzeko prozesuen azterketa konparatiboa, Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Sariaren irabazlea**

*Beñat Garaio Mendizabal 32 urteko gasteiztarrak ikerketa soziolinguistikoa egingo du, UNESCOren Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Hamarkadaren (2022-2032) hastapenean*

**Gasteiz, 2023ko maiatzak 2.** "Kia ora, takatāpui: māoriera eta euskararen biziberritze prozesuak elkarlotzen" da Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria 2023 irabazi duen proiektuaren izenburua. 2019az geroztik, bi erakundeek urtero banatzen dute 35 urtetik beherako gazteei Humanitate, Kultura, Arte edo Gizarte Zientzien arloetan proposatutako sormen- edo ikerketa-proiektu onenak abiatzeko.

Metodologia berritzailea erabiliz eta soziolinguistika anglosaxoiaren laguntzarekin, ikerketa honek Zeelanda Berrian euskara eta maori hizkuntza biziberritzeko prozesuak elkarlotzea du helburu, eta horrekin maori-kulturaren ikuspuntu filosofiko-akademikoa euskal eremura hurbiltzea, epaimahaiak bere ebazpenean adierazi duen bezala. Gainera, saria ematea bat dator UNESCOren Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Hamarkadaren hasierarekin (2022-2032), munduko hizkuntza aniztasunarentzako mugarria.

Beñat Garaio Mendizabal (Gasteiz, 1990) hezkuntza arloan trebatu zen, eta Soziolinguistikan espezializatu zen Londresko SOAS Unibertsitateko (Ekialdeko eta Afrikako Ikasketen Eskola) *Language Support and Revitalization* masterrarekin eta HIZNET Hizkuntza Plangintzako graduondokoa. 2022an UPV/EHUko ELEBILAB ikerketa-taldean doktoratu zen, eta lan horrengatik Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak emandako Arte eta Humanitateen arloko Euskarazko Tesi Onenaren VIII. Koldo Mitxelena Saria jaso zuen.

Hainbat ekimenetan parte hartu du, bai ikerkuntzan (Eusko Ikaskuntzaren "e5" egitasmoaren dinamizatzailea eta Soziolinguistika

Klusterra, besteak beste), bai antolaketan (HIGA!, EuskarAbentura eta Hitz Adina Mintzo).

2014tik hirurogei artikulu baino gehiago argitaratu ditu. Gaur egun, ikertzaile eta proiektuak garatzen dihardu hainbat erakunderentzat, Bizierri IGB elkarte zibilaren bitartez.

Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria 2023 irabazi duen proiektua, 6.000 euroekin lagunduta, 2024 amaierara arte ekintza ezberdinekin gauzatzea aurreikusten da.

## NOTA INFORMATIVA

### **Un estudio comparativo de los procesos de revitalización del maorí y del euskera, ganador del Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria**

*El vitoriano Beñat Garaio Mendizabal, de 32 años, llevará a cabo la investigación sociolingüística en coincidencia con el Decenio Internacional de las Lenguas Indígenas de la UNESCO (2022-2032)*

**Vitoria-Gasteiz, 2 de mayo de 2023.** “Kia ora, takatāpui: māoriera eta euskararen biziberritze prozesuak elkarlotzen” es el título del proyecto ganador del Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria 2023, premio que desde 2019 conceden anualmente ambas instituciones a los mejores proyectos creativos o de investigación propuestos por jóvenes menores de 35 años en las áreas de Humanidades, Cultura, Artes o Ciencias Sociales.

Sirviéndose de una metodología innovadora y con apoyo de la sociolingüística anglosajona, esta investigación busca relacionar los procesos de revitalización del euskera y de la lengua maorí en Nueva Zelanda, y con ello acercar al ámbito vasco el punto de vista filosófico-académico de la cultura maorí, tal como señala el jurado en su resolución. Además, la concesión del premio coincide con el comienzo del Decenio Internacional de las Lenguas Indígenas de la UNESCO (2022-2032), que supone un hito en la defensa de la diversidad lingüística mundial.

Beñat Garaio Mendizabal (Vitoria-Gasteiz, 1990) se formó en el ámbito educativo, especializándose en Sociolingüística en el master *Language Support and Revitalization* de la Universidad SOAS de Londres (Escuela de Estudios Orientales y Africanos), y en el postgrado en Planificación Lingüística HIZNET. En 2022 se doctoró en el grupo de investigación ELEBILAB de la UPV/EHU, trabajo por el que mereció el VIII Premio Koldo Mitxelena a la Mejor Tesis en Euskera en el área de Artes y Humanidades otorgado por la Universidad del País Vasco y Euskaltzaindia.

Ha participado en numerosas iniciativas tanto en el ámbito de la investigación (dinamizador del proyecto "e5" de Eusko Ikaskuntza y

Cluster de Sociolingüística, entre otros) como en el organizativo (como HIGA!, EuskarAbentura y Hitz Adina Mintzo).

Desde 2014 ha publicado más de sesenta artículos. Actualmente trabaja como investigador y desarrollador de proyectos para diversas instituciones a través de la asociación civil Bizierri IGB.

El proyecto ganador del Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria 2023, premiado con 6.000 euros, está previsto que se ejecute con diferentes acciones hasta finales de 2024.